

# Bide Otek

IKUS-ENTZUNEZKO  
BESTELAKO  
NARRATIBEI BEGIRA

ARTEA ETA  
KULTURA

**Alhóndiga**  
Bilbao

Kultura Bizi  
Den Tokia

[www.alhondigabilbao.com](http://www.alhondigabilbao.com)

**B**

## **BideOrik** ERRETRATUA, LURRALDEA ETA IBILALDIA

# IKUS-ENTZUNEZKO BESTELAKO NARRATIBEI BEGIRA

Urtarrilaren 13tik abenduaren 22ra

3€ /  2€

Urtarrilaren 13an, **BIde0tik** hasiko da, ikus-entzunezko bestelako narratibei begira jarrita, bideoaren bidez inguruan duguna erregistratu eta irudikatzeke modu berriak ekarriko dizkigun zikloa.

Itxaso Diazek koordinatutako programa honen bidez, agerian jarri nahi ditugu bertan, estatuan eta nazioarte osoan sortu eta egin diren bideo-sorkuntzako lanak eta proiektuak, arte-, sorkuntza- eta kultura-arlotik datozen eta ikus-entzunezko hizkuntza modu pertsonal, intimista eta hurbilagoan darabilten pertsonen egindakoak.

**ERRETRATUA - LURRALDEA - IBILALDIA** dira BIde0tik zikloan erakutsiko ditugun ikus-entzunezko hamar lanak multzokatzeko ditugun hiru esparruak. Hileko saio bakoitzean, egileak izango ditugu aurrean, beren lana aurkezten, eta prozesua eta bertan parte hartu direnak erakusten.

**BIde0tik saioak hilean behin izango dira, asteartearekin, 19:00etan, Bastida Aretoan, Auditoriumean edo Golem zinemetan, proiektzioaren arabera, eta prezioa 3 eurokoa izango da, 2 eurokoa AlhóndigaBilbao txartela edukiz gero.**

Sarrerak salgai Infopuntuan eta [www.alhondigabilbao.com](http://www.alhondigabilbao.com) helbidean

# ITXIASO

Itxaso Diaz, Bideo-sortzailea eta BideOtik zikloaren koordinatzailea

**Etimologikoki, bideo hitza latineko video, vides, videre aditzetik dator, eta ikusi da bere itzulpena. Ikusi, begiratu, behatu eta bideoratu kontzeptuei erreparatuta, AlhóndigaBilbaok bideo-sorkuntzako BideOtik programa jartzen du abian, ikus-entzunezko bestelako narratibei begira, bideo-euskarria erabiltzen duten lanak eta ibilbideak bilatzen eta identifikatzen dituen zikloa.**

BideOtik espazioak barne hartuko dituen sorkuntza-lanak izaera esperimentalagoa eta bereizgarriagoa izango dute, ikus-entzunezko lexikoan erregistratzen eta irudikatzen duten bestelako moldeek baino.

Zikloaren bidez, agerian jarri nahi dira bertan sortu eta egin diren bideo-sorkuntzako lanak eta proiektuak (BIO, Bilbo), estatukoak eta nazioartekoak atzendu gabe, hain zuzen, arte-, sorkuntza- eta kultura-arlotik datozen eta ikus-entzunezko hizkuntza eta tresna modu pertsonal, intimista eta hurbilagoan darabiltzaten pertsonen egindakoak.

Urtekoa ziklo honek (2015) zeharkako ibilbidea egingo du erretratuei, lurraldeei eta ibilbide profesionaleri lotuta dauden era askotako gaietatik (BIOgrafiak), eta hainbat hizkuntza erabiliko ditu horretarako: gaztelania, euskara, frantsesa, portugesa eta grekoa.

**Hileko saio bakoitzean** –guztira hamar izango dira–, **egileak izango dira, aurkezpena egiten**. Ziklo honen zati garrantzitsu batean, burututako lanen proiektzioak egiteaz gain, proiektu eta ibilbide bakoitzaren atzean dauden pertsonak eta prozesuak hartuko dira aintzat. Plataformak lanak erakusteko aukera emango die egileei, eta, era horretan, arlo publikora hurbilduko ditu haien bideo-sorkuntzak.

Gai desberdinei lotutako edukiek eta formatuek pizten duten interesa partekatzeo irrikak eragina izan du zikloaren lehen urte honetarako obra eta egile aldetik egin dugun hautuan. Hamar saioetatik sei

arlo dokumentalekoak dira: Pilar Baizáen (Asturias, 1978) Arte entre Fogones lana sukalde-errezetaz baliatzen da Bilboko hainbat artistaren erretratua egiteko; Stéphane Abbouden (Libano, 1976) Una rencontre lanak, partekatutako pantaila baten bidez, jendartean baztertuta geratzeko arriskuan dauden nerabeen talde baten erretratua egiten du; Alejandro Alvarado eta Concha Barqueroren (Málaga, 1975) Pepe el andaluz lan pertsonal eta intimistak familiako identitatearen bilaketa lantzen du hainbat urtez eta hainbat lurraldetan; Erika Yurre eta Pedro Salgadoren (Bilbo, 1980 eta Guimaraes, 1984, hurrenez hurren) Desviación (1970-2011) lanean, istorioko protagonistak Greziako Zakyntos uharteko espazioak zeharkatzeko-erregistratzeko duen obsesioa islatzen da; Carlos Gomes eta Fran Lópezen (Barreiro, 1969 eta Huelva, 1977, hurrenez hurren) UMA lanean, Ultra Maratón Atlántica proba deskribatzen da, probako zortzi korrikalariren ikuspegia eta esperientzia azalduz; eta, azkenik, Nerea Castroren (Bilbo, 1975) La habitación protegida filmean Arno Stern-en bizitza eta oinordetza eta hezkuntza sortzailea aztertze beharra agertzen da.

Bestelako narratibei begira jartzeko duen helburuari jarraiki, Bide0tik zirkloak ibilbideak egiteko aukera eman nahi du, horien bidez, grafiak, idazteko moduak, grafikoki irudikatze erak bideo-tresna erabiliz ulertu eta aintzat hartu ahal izateko.

Hainbat egileren filmografian barrena ibilbidea eginez edo haien bideografiak eginez, beren bideo-espresioko moldeen hizkuntza-ezaugarriak zehaztu ahal izango ditugu. Helburu horri eskainiko dizkiogun lau saioetan, oso formatu, eduki, interes eta emaitza desberdinak aurkituko ditugu: María Cañasen (Sevilla, 1972) Sé villana (La Sevilla del diablo) lanak azterketa kritikoak egiten ditu, found footage jokoaren, birnahasketaren, estereotipoen eta herri-ikonografiaren bidez. María Ibarretxe eta Alaitz Arenzanaren (Bilbo, 1977 eta 1976) Sra Polaroiska lanean, dantzak eta koreografiak pisu eta garrantzi handia eta nabaria dute. Ramón Churrucaren (Bilbo, 1964) saioek proiektzioa eta performanceak izaten dituzte beti aldi berean; eta artistak bere buruaren kontra, eta bertako kultura- eta arte-arloko gainerako protagonisten aurka jotzen du haietan. Eduardo Gaviña (Laudio, 1969), Yogurinha Borova izenez ere ezaguna dena, argazkilaria, kantaria, showman... da, besteak beste. Zeharkako tresna moduan erabiltzen du bideoa, bere imaginario transformista zabala irudikatze, bideoklipak, web bideoak, bideoblogak eta bestelako formatuak landuz.

**Hamar saio hauetan, eta obra eta sortzaileen hautu honekin, programa egokia hurbildu nahi izan diegu ikusleei, arteari, kulturari eta bideoa ulertu eta lantzeko bestelako moldeei lotutako ikus-entzunezkoen egungo ekoizpen erabat zatikatuaren eta askotarikoaren erakusgarri.**

URTEKO  
PROGRAMA

E

URTARRILA, OTSAILA  
MARTXOA

1

## ERRETRATUAK

APIRILA, MAIATZA, EKAINA

### Urtarrilak 13

**Bastida Aretoa. -2 solairua**

#### **ARTEA SU TARTEAN**

ARTE ENTRE FOGONES

Bilbo (2012-2014)

Pilar Baizán (Asturias, 1978)

JB (gaztelania)

Hiru kapitulu, bakoitza 30 minutukoa

### Otsailak 10

**Bastida Aretoa. -2 solairua**

#### **'UNE RENCONTRE' (2012)**

Stéphane Abboud Libano (1976)

JBGA (frantsesa) 60'

### Martxoak 31

**Bastida Aretoa. -2 solairua**

#### **PEPE EL ANDALUZ**

Espainia, Polonia, Kanada, Kolonia eta  
Argentina (2012)

Alejandro Alvarado eta Concha

Barquero (Málaga, 1975)

JB (gaztelania) 83'

---

Sarrerak salgai  
infopuntuan eta  
[www.alhondigabilbao.com](http://www.alhondigabilbao.com)  
helbidean

---

# 2

## LURRALDEA

Apirilak 28

Bastida Aretoa. -2 solairua

**DESVIACIÓN  
1970-2011**



Euskadi-Grezia (2011-2014)

Erika Yurre (Bilbao, 1980)

eta Pedro Salgado

(Guimaraes 1984)

JBGA (grekoa) 75'

Maiatzak 19

Bastida Aretoa. -2 solairua

**UMA**

Portugal eta Espainia (2013)

Carlos Gomes (Barreiro,

1969) eta Fran López

Reyes (Huelva, 1977)

JBGA (portuges) 61'


Ekainak 9

Bastida Aretoa. -2 solairua

**SÉ VILLANA  
(LA SEVILLA  
DEL DIABLO)**

María Cañas (Sevilla, 1972)

JB (gaztelania)



IRAILA, URRIA ETA AZAROA

# 3

## IBILBIDEA

Irailak 29

Bastida Aretoa. -2 solairua

**SRA. POLAROISKA FILMOGRAPHY**

Alaitz Arenzana (Bilbo, 1976) eta

María Ibarretxe del Val (Bilbo, 1977)

JB (gaztelania)

Urriak 20

Bastida Aretoa. -2 solairua

**RAMÓN CHURRUCA FILMOGRAPHY**

(Bilbo, 1964) JB (gaztelania)

Azaroak 3

Bastida Aretoa. -2 solairua

**EDUARDO GAVIÑA Y SU ALTER EGO**


**YOGURINHA BOROVA FILMOGRAPHY**

Eduardo Gaviña (Laudio, 1969)

JB (euskara eta gaztelania)

# 4

## IBILBIDE BATEN ERRETRATUA



ABENDUA

Abenduak 22 19:00

Auditoriuma. -1 solairua


**LA HABITACIÓN PROTEGIDA**

Euskadi-Paris (2014)

Nerea Castro (Bilbo, 1975)


JBGA (frantsesa) 60'





URTARRILA - OTSAILA - MARTXOA





ERRETRATUAK

*BideOtik bideo-sorkuntzako zikloko lehen hiru saioek oso ikuspegi desberdinetatik helduko diote erretratuari. Ibilbide artistikoen erretratuak, jendartetik eta jendarteko bazterkeriatik iritsitako erretratuak eta autorretratuak, eta familia-bilaketa baten erretratuak, urte luzez eta hainbat lurraldeetan barrena egina.*

## Programa

### ARTEA SU TARTEAN

Bilbo (2012-2014)

Pilar Baizán (Asturias, 1978)

JB (gaztelania). Hiru kapitulu,  
bakoitza 30 minutukoa

**Urtarrilak 13. 19:00**

**Bastida Aretoa. -2 solairua**

### 'UNE RENCONTRE' 2012

Stéphane Abboud (Libano, 1976)

JBGA (frantsesa) 50'

**Otsailak 10**

**Bastida Aretoa. -2 solairua**

### PEPE EL ANDALUZ

Espainia, Polonia, Kanada,

Kolonbia eta Argentina (2012)

Alejandro Alvarado eta Concha

Barquero (Málaga, 1975)

JB (gaztelania) 83'

**Martxoak 31**

**Bastida Aretoa. -2 solairua**



# ARTEA SU TARTEAN

Bilbo (2012-2014)

Pilar Baizán (Asturias, 1978)

JB (gaztelania). Hiru kapitulu, bakoitza 30 minutukoa


Urtarrilak 13. 19:00

Bastida Aretoa. -2 solairua

Sail dokumental honek artea, artistak eta sukaldea jartzen ditu harremanetan. Kapitulu bakoitzean, hautatutako artista batek prestatuko du janaria, eta, aldi berean, bere ekoizpen artistikoaren berri jasoko dugu. Programaren lehen zatian, artista eta bere obra ezagutuko ditugu, aurkezpen eta elkarrizketa baten bidez. Bigarren zatian, artistak berak hautatutako errezeta prestatuko du. Artistak bere sukaldean edo estudioan janaria prestatzen duen bitartean, areago sakonduko dugu bere lanean eta bizitzan, elkarrizketa baten bidez. Kapitulu bakoitzak ordu erdiko iraupena izango du. Ignacio Sáez, Saioa Olmo eta Mabi Revueltarenak proiektatuko ditugu.



[www.artentrefogones.com](http://www.artentrefogones.com)



Otsailak 10  
Bastida Aretoa. -2 solairua

## 'UNE RENCONTRE' (2012)

Stéphane Abboud (Libano, 1976)  
JBGA (frantsesa) 50'

Pieza dokumental hau artista bideo-egile batek 13 neska neraberekin izandako elkarketaren emaitza da. Nerabeak egoera sozial larrian daude, indarkeria, justizia eta beste auzi batzuei lotutako hainbat arrazoiengatik. Elkarketa horren ondorioz, artistak bideo-erretiratu bat egiten du, neska horiekin elkarlan estuan, 10 egunez workshop-ean arituta. Hemen erakusten den lana esperientzia horren emaitza da: parte hartzen duten neskek beren buruari buruz beren ikuspegitik hitz egitea onartzen dute Gazte hunkigarriak.



Martxoak 31  
Bastida Aretoa. -2 solairua

## PEPE EL ANDALUZ


Espainia, Polonia, Kanada, Kolonbia  
eta Argentina (2012)  
Alejandro Alvarado eta  
Concha Barquero (Málaga, 1975)  
JB (gaztelania) 83'

'Txikitari esan zidaten aitona Pepe hil zela. Gero jakin nuen Gerra Zibila bukatu ondoren Argentinara joan zela, zorte hobearen bila. María amonak ez zuen inoiz besterik jakin aitonaz. Bakarrik egonda, Espainiatik alde egin behar izan zuen, hiru seme-alaba hezteko. Horrelaxe hasi zen familiako diaspora, mundutik barreiatuta gauzkanak. Pepe el Andaluz denboraren eta ahanzturaren kontrako bidaia bat da. Galderak baizik egiten ez dituen istorio bat, ustekabeko aurkikuntzak dituen ezkutuan: aitona zenaren irudi zatikatuko atalak, osatu gabeko mapa bat baita aitonaz dudak bakarra.

BideOtik... BideOra

# Arturo Rodríguez Bornaeetxea

UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko Arte  
eta Teknologia Saileko Irakaslea



Azken urteotan, 'pantaila global' (Lipovetsky) eta 'audiobisualizazio' (Villota) bezalako kontzeptuek edo 'esposizio-zinema' eta 'live cinema' bezalako terminoek konplexuago bilakatu dituzte ikus-entzunezkoak praktika kultural garaikideekin dituen harremanak. Azkenean ontzat jotzen badugu artearen munduan 'arte plastikoaren' kontzeptutik 'arte bisualetara' igaro dela, arrazoiak aurkituko ditugu etengabe mugitzen ari den –ezin bestela izan– ikuspegi sortzailearen irudiari arreta osoz behatzeko.

Gaur egun, ikus-entzunezkoa hedatzen ari da, zinema eta artearen, dokumental eta fikzioaren artean azaldu da bere toki naturala, eta, bertan, era askotako formatuak, estiloak eta formak korapilatzen dira. Horrek erronka berriak jotzen ditu. Izan ere, denok ikus ditzakegu lurralde sortzaile horren dimentsioa eta adierazpen aldetik dituen aukera ugariak, baina oraindik ere desoreka nabaria dago gaur egun ekoizteko eta erakusteko dauden gailuekiko. Proposamen-mota horiek erakundearen ekoizpen-politiketan nola egokitzen diren dugu mintzagai: deialdiak, laguntzak, sostenguak. Baina mota honetako lanei dagozkien bisualitate-politikak ere bai, hau da, mugitzen ari diren irudiek erakunde artistikoan – museo, arte-zentro, galerietan...– betetzen duten lekua definitzea edo birdefinitzea.

Laurogeiko hamarkadatik hona, bideoaren sektorea instituzionalizatuz joan da Espainiako estatuan, eta prozesu horren oinarrian zenbait mugarri izan dira, hala nola 'bideo-erakusketa handiak'<sup>1</sup>, eredua ezartzeko, irudikatu eta artelan berriak 'kokatzeko' espazio berezia zedarrizteko eginak<sup>2</sup>. Une horretatik aurrera, kultura jaialdiko gai bilakatzeko, eta ikusgaitasunaren beste dimentsio batean (ikuskitasunarekin bat eginez arian-arian) txertatzeko prozesuak eragina izan zuen garai hartako ikus-entzunezkoen ekoizpenean, eta jarrera kritikoak eta esperimetalak atera ziren, hala zineman nola bideoan. Ekoizpen-zentro batzuek<sup>3</sup> aukera ematen zuten lurralde horiek haztzen jarraitzeko, zinematografoaren, saiakera-bideoaren edota dokumental subjektiboaren bide esperimetalak bat eginda, alde horietan mota honetako lanak berez nahasten baitziren diskurtso artistikoarekin edo intuizioz txertatzen baitziren erakusketako display-an.

Bitartean, jaialdi eta saio minoritarioek gutxienez leiho bat uzten zieten zabalik proposamenik arriskutsuenei. Jaialdi batzuen bidez, aukera berriak aurkitu genituen sorkuntza-arloan; beste batzuek gaitasuna izan zuten nolabaiteko ehun ordezkatzaila metatzeko (adibidez, Iruñeko 1996ko eta 1998ko bideo-topaketek); batzuk plataforma izan ziren erakusketa edo artxiboko formula berriak garatzeko (hala nola Cádiz eta Vigoko jaialdiak); eta beste batzuk berritasun eta arriskutik abiatu, eta gaiak piztutako sukarra baretu ondoren desagertu ziren (infografia, musikala, etab.).

Euskal Herrian, erakusketaren ikuspegitik, badirudi Donostiako Bideo Jaialdi (1982-1984) goiztiar eta laburraren oroimenak baliorik gabe uzten duela 1987 eta 1990 bitartean izan zen Tolosako Bideoaldia. Hala ere, funtsezko hitzordu horrek sormenezko tresnei arlo politikotik heldu behar zietela ondo zekiten sortzaileen talde homogeneoa bildu zuen. Ildo horretatik sortu zen Off video (1992-1995), hiruhileko ereduzko argitalpena eta programazioa, egilean, joeran eta erresistentzien berri eman zuena. Getxoko Nazioarteko Bideo Erakusketak laurogeiko hamarkadaren amaieran, Gasteizko Musika Bideoaren Jaialdiak eta ondorengo formatuek laurogeita hamarreko hamarkadan, Rekalde Aretoko bideo-programazioak (1992-1994) edo Nafarroako Ikus-entzunezko Sorkuntzako Jaialdiak (1993-2002), besteak beste, bideo-artearen bideratu zuten, instalazioan, edota 'alter' edo 'hipermedia' esperientzietan urtu zedin, interaktibitatearen formula magikoarekin. Teknologia berrien babesean azaltzen ari ziren hizkuntza artistiko berrietara egokitzeko egindako ahaleginaren ondorioa izan zen, zalantzarik gabe.

Mende berriarekin batera, nabaria izan zen bilgune bat sortu behar zela, eta, horren ondorioz, sorkuntzako energia jakin batzuk metatu ziren berriz ikus-entzunezkoen arloan. Euskarrien auzi zismatikoa gainditzea – gehienbat formatu digitalak ezarrita – eta, horrez gain, zabalkuntza eta banaketa-arloak berrasmateza –ikusle berriak sortuz– izan dira gure iragan hurbileko berririk onenetakoak. Zeregin horretan ezin da atzendu hitzordu batzuek bete duten lana,

besteak beste, hauek: Festival Punto de vista, Territorios y fronteras proiektua eta MAC (Mutaciones Audiovisuales Contemporáneas)<sup>4</sup> Bideodromo, MEM, Intervenciones.tv, Arte Ederren Fakultateko ikus-entzunezko erakusketak Bilboko Zinebi – Zinema Dokumentalaren Jaialdiaren ExLS atala...

Ikuspegi berri horren aurrean, AlhóndigaBilbaoko BideOtik proposamenak aurre egiten die gaur egungo ikus-entzunezkoak dituen erronkei, eta bide bat urratzen du zabaltzeko, jendaurrean jartzeko eta egin beharreko eztabaida egiteko, aldi berean ekoizteko aukera emanda. BideOtik programak zabaldutako bidea erakusketa-plataforma ezinbestekoa da sortzaileen belaunaldi oso batentzat, ikus-entzunezko gailua arte garaikidearekin eta beren garaiko jendartearekin zuzenean lotzeko gailutzat hartzen duten horientzat. Mota honetako programa batek dituen ikus-entzunezko proposamenen artean dauden isuraldatzeen eta transferentzien ondorioz sortzen diren erakusketa-formulek ekintzak, zuzeneko jarduerak edo esperientzia elkar-eragileak har ditzakete barne. Alabaina, kontua ez da kategoriak zehaztea edo transferentzia horiek sailkatzea, baizik eta behatzea zein baldintzatan sor dezaketen zentzua eta nola susta dezaketen benetako esperientziazio artistikoa. Hortaz, BideOtik programaren formatu sekuentziatua eta elkarriketara irekia, bere ikuspegi desberdina eta kode irekiaren argitasuna baliagarriak izan daitezke era askotako ikusleentzat. Alabaina, sortzeko forma hibridoak eta

adierazteko forma berrietarako aukerak azaltzea da bere benetako indarra. Hortaz, orain, ikuspegi heterogeneo horri behatu behar diogu, baina batez ere hartaz gozatu behar dugu, egungo sormenezko egoeraren argitan interpretatzeko, arlo akademikoan aukera gisa ikusteko, eta etengabe berrinterpretatzen eta aldatzen ari den euskarri artistiko gisa balioesteko. Bideoarekin hasi eta, ikus-entzunezkoak zehaztutako bidetik, sormen artistikoraino.



---

**IKUSPEGI BERRI HORREN  
AURREAN, ALHÓNDIGABILBAOKO  
BideOtik PROPOSAMENAK  
AURRE EGITEN DIE GAUR  
EGUNGO IKUS-ENTZUNEZKOAK  
DITUEN ERRONKEI, ETA BIDE  
BAT URRATZEN DU ZABALTZEKO,  
JENDAURREAN JARTZEKO ETA  
EGIN BEHARREKO EZTABAIDA  
EGITEKO, ALDI BEREAN  
EKOIZTEKO AUKERA EMANDA**

---

## O h a r r a k

1 // Eratzen duten sekuentziaz ari gara: "La imagen sublime" (1987), 'La bienal de la imagen en movimiento' (90 eta 92) eta 'Señales de video' (1995).


2 // Gertaera-multzo honi buruzko berrikusketa funtsezkoa eta bere esanahiaren azterketa egokia dago testu honetan: Ignacio Estellaren 'Cuando las actitudes devienen norma. Institucionalizaciones del video en el Estado español', 'Desacuerdos nº4. Sobre arte, políticas y esfera pública en el Estado español', Arteleku- Gipuzkoako Foru Aldundia, Centro José Guerrero-Diputación de Granada, Museu d'Art Contemporani

de Barcelona (MACBA), Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía (MNCARS) eta Universidad Internacional de Andalucía-UNIA arteypensamientok ekoitzia, 2007.

3 // Euskal Herrian, ikus-entzunezko ekoizpeneko beste zelula batzuen artean, Donostiako Arteleku eta Larrotxeneko kultura-etxea, Gasteizko CINT - Irudi eta Teknologia Berrien Zentroa, UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko Ikus-entzunezkoak...

4 // UPV/EHUko Ikus-entzunezko Komunikazioko Fakultateari lotuta biak.






APIRILA - MAIATZA - EKAINA



LURRALDEA



*Bigarren hiruhilekoko saioetan, lurraldea izango da gai guztiak harilkatuko dituen ardatza. Greziako uharte bateko ibilbideak obsesiboki mapan kokatzea eta erregistratzea, Andaluziako lurralde-imaginarioa eta estereotipoak, eta lurraldea erresistentzia mentaleko proba fisiko baten agertoki gisa: Ultra Maratón Atlántica.*

## Programa

### DESVIACIÓN 1970-2011

Euskadi-Grezia (2011-2014)  
Erika Yurre (Bilbao, 1980) y Pedro Salgado (Guimaraes 1984)  
JBGA (grekoa) 75'

**Apirilak 28**

**Bastida Aretoa. -2 solairua**



### UMA

Portugal eta Espainia (2013)  
Carlos Gomes (Barreiro, 1969) y Fran López Reyes (Huelva, 1977)  
JBGA (portugesesa) 61'

**Maiatzak 19**

**Bastida Aretoa. -2 solairua**

### SÉ VILLANA (LA SEVILLA DEL DIABLO)

María Cañas (Sevilla, 1972)  
JB (gaztelania)

**Ekainak 9**

**Bastida Aretoa. -2 solairua**



Apirilak 28  
Bastida Aretoa. -2 solairua



Maiatzak 19  
Bastida Aretoa. -2 solairua

## DESVIACIÓN 1970-2011

Euskadi-Grezia (2011-2014)  
Erika Yurre (Bilbao, 1980) y  
Pedro Salgado (Guimaraes 1984)  
JBGA (grekoa) 75'



'Desviación 1970-2011' lanak Atenas eta Zakynthos uhartearen artean garatutako ikerketa eta sorkuntzako prozesua azaltzen du. Orainean egindako bidaia bat, Triantafilos Papazissis-en iraganeko ibilaldien erregistroetan barrena. Espazio eta denborazko erregistro bat, denboraren poderioz tokiak nola eraldatzen diren eta bilatze- eta sortze-prozesua bera aztergai dituen.

## UMA

Portugal eta Espainia (2013)  
Carlos Gomes (Barreiro, 1969) y  
Fran López Reyes (Huelva, 1977)  
JBGA (portugesa) 61'

Portugal hegoaldean, Lisboatik 50 km-ra, edertasun natural bakana duen lurralde bat dago, gizakiak Europa osoan gutxien esku hartutako itsasaldean kokatuta. Munduan ia bakarra den errepide baten agertoki idilikoa: 43 km, hondartzako haren zehar, Ozeano Atlantikoaren luzeran. Jarrera, indar mentala, prestatze-lana, eta entrenamendu eta sakrifizio handia behar dituen erronka. Atleten beren mugei jotzen



Ekainak 9  
Bastida Aretoa. -2 solairua

## SÉ VILLANA (LA SEVILLA DEL DIABLO)


María Cañas (Sevilla, 1972)  
JB (gaztelania)

diete erronka, distantziari aurre eginez, lurralde hori gure orde zeharkatuz. Dokumentalak zortzi atletari egiten die jarraipena. Sorburu eta baldintza desberdinekoak izanik, korrika egiteko dituzten motibazioak aletzen dituzte, eta korrika egitean zer darabilten gogoan, eta haientzat eta haien bizitzan korrikalaria izateak zer esan nahi duen ere azaltzen dute.

Sé villana (La Sevilla del Diablo), fanatismoen industriari buruzko erakusgai errebolta bat izateaz gain, omenaldi bat da, gizon-emakumerik gogorrenei egina. Herri-sormenari, ahulen, bitxiaren, poeten, erbestera-tuen, eroen, prostituten... indarrari egina. Herriari, ez soilik material folklorikoaren harrobi den herriari, historiaren benetako protagonista, historiaren abiada geldiarazteko ahalmena duen protagonista den herriari ere bai.




[www.animalario.tv](http://www.animalario.tv)  
[vimeo.com/62269731](https://vimeo.com/62269731)



IRAILA - URRIA - AZAROA



IBILBIDEA



*Irailean, berriz ekingo diogu zikloari,  
eta egileen ibilbidea aztertuko duten  
hiru saio egingo ditugu, adierazteko  
dituzten aztarnak... haien bideo-  
identitatea zehazteko asmo garbiz.*

## Programa

### SRA. POLAROISKA FILMOGRAPHY

Alaitz Arenzana (Bilbo, 1976) eta  
María Ibarretxe del Val (Bilbo, 1977)

JB (gaztelania)

**Irailak 29**

**Bastida Aretoa. -2 solairua**

### RAMÓN CHURRUCA FILMOGRAPHY

(Bilbo, 1964) JB (gaztelania)

**Urriak 20**

**Bastida Aretoa. -2 solairua**

### EDUARDO GAVIÑA Y SU ALTER EGO

### YOGURINHA BOROVA FILMOGRAPHY

Eduardo Gaviña (Audio, 1969)

JB (euskara eta gaztelania)

**Azaroak 3**

**Bastida Aretoa. -2 solairua**



## SRA. POLAROISKA FILMOGRAPHY

Alaitz Arenzana (Bilbo, 1976)  
eta María Ibarretxe del Val (Bilbo, 1977)  
JB (gaztelania)

Irailak 29  
Bastida Aretoa. -2 solairua

Alaitz Arenzanak eta Maria Ibarretxek eratzen dute Sra Polaroiska. Beren obrak zinema esperimentalak, ekintzako arteak, eta sorkuntza eszenikoa eta koreografikoa ditu ardatz. Lanean, bestelako espazioak eta hizkuntzak bilatzen dituzte, ideiak eta kezkek arlo politiko, sozial eta estetikoan garatu ahal izateko.

Obrak anbiguoak dira berariaz. Gorputzari lotutako rolekin jolasten dute, beha dagoen begiradari egonkortasuna galarazteko, ikusten duen zera horren aurrean jarrera bat hartzera

behartzeko. Ikuslea erabat murgiltzen da haiek sortutako munduan, espazioan. Espazio hori zabalik dago. Era askotako interpretazioak izan ditzake, pantailan gertatutakoari begira dauden begiradak beste.

Sra Polaroiskak ikuspegi desberdin batetik aurkeztuko digu bere filmografia. Bi artista hauek beren obra berrikusiko dute, egoera honetarako berezia izango den ikuspegi batez, eta, hor, gorputzak eta espazioarekiko harremana izango dira protagonista nagusiak.

**Hainbat pieza proiektatuko dira.**





Urriak 20  
Bastida Aretoa. -2 solairua

## RAMÓN CHURRUCA FILMOGRAPHY

(Bilbo, 1964)  
JB (gaztelania)

Ulertu ezina, bakartzea eta malditismoa dira Ramón Churrucak ekoizpen artistikoari eta ekoizpen hori sortzen deneko testuinguruari buruz -testuinguru sozial, historiko edo (auto)biografikoari buruz- egiten duen ikus-entzunezko

hausnarketarako darabiltzan gako garrantzak eta, aldi berean, erabat autokritikoak. Molde horiek oso modu berezian gurutzatu ohi dira bere lanean, eta baliabide bisual eta narratiboen sorta askotariko eta irudimentsu batez jarriko dira ikusgai.

**Hainbat pieza proiektatuko dira eta performance bat egongo da aldi berean.**





Azaroak 3  
Bastida Aretoa. -2 solairua

## EDUARDO GAVIÑA Y SU ALTER EGO YOGURINHA BOROVA FILMOGRAPHY

Eduardo Gaviña (Laudio, 1969)  
JB (euskara eta gaztelania)


'NIRE AMETSAK BIZI DIREN TOKIETAN  
SEKULA EZ NAGO LO, ETA AREAGO'.

Eduardo Gaviña ez da soilik bideoan aritzen; transformismoa, argazkigintza, kanta, telebista, komedia, ikuskizuna ere lantzen ditu, besteak beste. Diziplina anitz eta aurpegi askotako artista honek bideo-piezak jarri ohi ditu bere jarduera gehienekin batera, eta ondo berraztertzea merezi dute.

**Hainbat pieza proiektatuko dira eta saio bat izango da aldi berean.**




[www.eduardoeduardo.com](http://www.eduardoeduardo.com)  
[www.yogurinhaborova.com](http://www.yogurinhaborova.com)  
[www.youtube.com/user/laYOGURINHA](http://www.youtube.com/user/laYOGURINHA)  
[www.youtube.com/user/gordiscos](http://www.youtube.com/user/gordiscos)  
[vimeo.com/yogurinha](http://vimeo.com/yogurinha)



ABENDUA





## IBILBIDE BATEN ERRETRATUA

*Zikloari amaiera emateko izango dugun proiektu dokumentalak ibilbide baten erretratua egiten du: Arno Stern eta Hezkuntza Sortzailea. Proiektua une honetan egiten ari da, eta 2015eko abenduan izango da estreinaldia.*

### Programa

#### LA HABITACIÓN PROTEGIDA

Euskadi-Paris (2014)

Nerea Castro (Bilbo, 1975)

JBGA (frantsesa) 60'

Abenduak 22

Auditoriuma. -1 solairua



Abenduak 22  
Auditoriuma. -1 solairua

## LA HABITACIÓN PROTEGIDA

Euskadi-Paris (2014)

Nerea Castro (Bilbo, 1975)

JBGA (frantsesa) 60'

'La habitación protegida' dokumentala krisialdi baten isla da: laurogeita hamar urte dituen Arno Stern, Parisko tailerrean jardunean dirauela, ohartzen da nola galtzen duten jolasteko gaitasuna eskolatutako hurrek. Nik 12 urte nituela ezagutu zuen aitak Arno, eta ondo ohartu nintzen zenbat aldatu zen etorkizuneko lanerako maisu eta eredu izango zuen pertsona hori ezagututa, azaltzen du dokumentaleko zuzendaria den Nerea Castrok. 'La habitación protegida' film intimoa da, erretratu filmikoaren eta filmatutako egunerokoaren arteko bide erdian. Beraz, zera baizik ez dago: kamera bat, pertsonaiengandik oso hurbil kokatuta, eta nire offeko ahotsa lehen pertsonan. Horiexek dira baliabideak, Arnorengana hurbiltzeko bidaiaren kontakizuneko ibilgailuak, argitzen du Nerea Castrok.

---

GURE JARDUERETARA IRISTEA ERRAZTEKO NAHIZ JARDUERAZ ENTZUMEN-GAITASUN HOBEAZ GOZATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOA BEHAR IZANEZ GERO, ESKA IEZAGUZU. ALHONDIGABILBAO ESPAZIOA IRISGARRIA DA PERTSONA GUZTIENTZAT.



---

## ZENTROAREN ORDUTEGIA

7:00 - 23:00 Astelehena-osteguna  
7:00 - 24:00 Ostirala  
8:30 - 24:00 Larunbata  
8:30 - 23:00 Igandea

## MEDIATEKA BBK

9:00 - 21:00 Astelehena-ostirala  
11:00 - 21:00 Larunbatak, igandeak eta jaiegunak

## JARDUERA FISIKORAKO ZENTROA

7:00 - 23:00 Astelehena-ostirala  
8:30 - 23:00 Larunbatak eta igandeak

---

Liburuxka hau zurekin eraman baino lehen, pentsa ezazu ingurumenaren inguruan duzun erantzukizunarekin eta konpromisoarekin. Ez baduzu erabiliko, utz ezazu bertan, beste pertsona batzuek ikus dezaten.

---

# www.alhondigabilbao.com

info@alhondigabilbao.com  
PLAZA ARRIQUIBAR, 4 - 48010 BILBAO  
944 014 014

Jendetzako ordutegia Infopuntuan eta telefonoan:  
Astelehenetik ostiralera: 8:00 - 22:00  
Larunbat, igande eta jaiegunetan: 9:00 - 22:00



**Alhondiga**  
Bilbao

Kultura Bizi  
Den Tokia

www.alhondigabilbao.com